

BASQUE SUSTAINABLE CONSTRUCTION PLAN

A **BUILD:INN** PROJECT

LABURPEN EXEKUTIBOA

SUSTA :INNA BILITY

Ardatza	Ildo estrategikoa		Ekintzak	Adierazleak (KPI)	Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak
PLANET	Klima-aldaketa eta berotegi-efektuko gasak	Karbono-aztarna	– Berotegi Efektuko Gasen Protokoloa (GHG Protocol) ezagutaraztea eta enpresentzat duen balioa nabarmentzea. – Eraikuntzaren sektorerako berariazko karbono-aztarna kalkulatzeko tresnen erabilera sustatzea, eta enpresei prestakuntza eta laguntza ematea; besteak beste, One Click LCA edo Ihoberen Climate and Circularity Calculator.	– 1. eta 2. irismeneko isuriak kalkulatu eta MITECOren erregistroan inskribatu dituzten enpresa elkartuen kopurua. – 3. irismeneko isuriak kalkulatu dituzten enpresa elkartuen kopurua. – Karbono-aztarna egiaztatu duten enpresa elkartuen kopurua.	One Click LCA, ITEC, Ecómetro, Ihobe
		Deskarbonizazio-plana	– Libro Blanco de la Descarbonización en el Sector de la Construcción dokumentuaren edukiak enpresa elkartuen artean zabaltzea, informazio-pilulen eta tailerren bidez; liburuaren aplikazio praktikoak eta jardunbide arrakastatsuen adibideak jasoko dituzte. – Eraikuntzaren sektorerako Europar Batasuneko teknika erabilgarri onenak biltzen dituen laburpen-orri itzuli bat prestatzea, enpresek errazago uler ditzaten.	– Teknika erabilgarri onenak aplikatzen dituzten enpresa elkartuen kopurua. – Deskarbonizazioaren arloan konpromiso publikoak edo barne-konpromisoak hartzen dituzten enpresa elkartuen kopurua. – Proposatutako ekintzak egin ondoren aholkularitza osagarria eskatzen duten enpresa elkartuen kopurua. – Zabalkunde-ekintzetan parte hartzen duten enpresa elkartuen kopurua.	Centro Vasco de Inteligencia Artificial (BAIC), BC3, Ihobe, Net-Zero Basque Industrial SuperCluster
		Mugikortasunaren eta makinerien optimizazio energetikoa	– Makineria konbentzionala elektrikoarekin ordezkatu nahi duten enpresek eska ditzaketen Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko dirulaguntzen zerrenda edo laburpena prestatzea. – Administrazio publikoekin hitzarmenak sustatzea, informazio geografikoko sistemak (GIS) eta adimen artifiziala (AA) erabiliko dituzten proiektuak bultzatzeko, ibilbideak erregai-kontsumoaren eta isurien ikuspegitik optimizatzeko.	– Makineria ordezkatzeko dirulaguntzak eskatu dituzten enpresa elkartuen kopurua. – Ibilbideak optimizatzeko administrazioekin egindako hitzarmenen kopurua. – Ibilbide eraginkorren proiektuek hartzen dituzten EAEko udalerrien kopurua.	MUBIL, Diputación Foral de Gipuzkoa, AZTI, BasqueCCAM, AIC, Euskalarido, EVE, SPRI
	Uraren eta hondakin-uren kudeaketa	Ur-aztarna	– Water Footprint Network enpresa elkartuen artean ezagutaraztea. – Barne-auditoriak egiteko txantiloi edo egiaztapen-zerrenda bat prestatzea, ur-aztarna egiaztatzeko garaian atzeraelikadura eskaintzeko eta enpresek autoebaluazioa egin ahal izateko. – Aqueduct Risk Atlas tresnaren erabilera sustatzea.	– Ur-aztarna kalkulatu duten enpresa elkartuen kopurua. – Ur-aztarna egiaztatuta duten enpresa elkartuen kopurua.	EsAgua, Tecnalia, Consorcios de Aguas
		Uraren kudeaketa jasangarria	– Azpiegitura berdeak ezartzean eragina izan dezaketen hirigintza-, araudi- edo plangintza-murrizketen zerrenda prestatzea. – Naturan oinarritutako drainatze jasangarriko sistemak (SuDS) garatzen dituzten enpresekin harremanak sortzea eta bitartekari-lanak egitea; adibidez, estalki berdeak edo zoladura iragazkorrak garatzen dituztenekin. – Enpresa elkartuei SuDS sistemei eta eraikuntzaren sektoreak duten aplikazioari buruzko prestakuntza ematea. – Eraikuntzaren sektorean ura berrerabiltzeari buruzko kasu arrakastatsuen eta jardunbide on horien onuren inguruko tailer bat antolatzea.	– Beren instalazioetan ura birziklatzeko edo berrerabiltzeko sistemak txertatu dituzten enpresa elkartuen kopurua. – Ura birziklatzeko edo berrerabiltzeko sistemak dituzten proiektuen ehunekoa. – Drainatze jasangarriko irtenbideak dituzten eraikuntza-proiektuen ehunekoa. – Hirigintza-murrizketen zerrenda kontsultatu edo deskargatu duten enpresa elkartuen ehunekoa (klusterraren gainean). – Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.	URA, Cetaqua, SuDS Drenaje Sostenible, Ayuntamiento de Madrid, Ihobe
	Produktuen diseinua eta bizi-zikloaren kudeaketa	Produktuaren ingurumen-adierazpena	– Bizi-zikloa modelizatzeko eta inpaktuak kalkulatzeko tresnak ezagutaraztea eta haien erabilera sustatzea; adibidez, Ihoberen Climate and Circularity Calculator. – Enpresa elkartuek produktuaren ingurumen-adierazpenak (DAP) presta ditzaten sustatzea, tailer praktikoen edo arauak interpretatzeko ikastaroen bidez.	– Produktuaren ingurumen-adierazpena (DAP) duten enpresa elkartuen kopurua. – Bizi-zikloaren azterketarako (ACV) software integratua duten enpresa elkartuen kopurua.	Tecnalia, Certinalia, IK-ingeniería, Ihobe, Innobasque.
		Produktuaren pasaporte digitala (PDP)	– PDPa ezartzeko lanean ari diren enpresekin tailerrak egitea, iritziak eta esperientziak alderatzeko. – PDP batek izan behar duen oinarrizko egituraren txantiloia sortzea. – PDParekin lotuta gauzatutako ekimenei buruzko prestakuntza-tailerrak antolatzea.	– PDParekin lanean hasi diren enpresa elkartuen kopurua. – Gizarte- eta ingurumen-inpaktuaren trazabilitatea ahalbidetzen duten produktuen ehunekoa. – Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.	Tecnalia, Certinalia, IK-ingeniería, Ihobe, Innobasque.
		Habitatak leheneratzea eta natura-kapitala babestea	– GKEekin eta tokiko elkarteekin lankidetzak ezartzea, enpresa-boluntariotzako jardunaldien bidez habitatak leheneratzeko proiektuetan parte hartzeko. – Tailer bat egitea enpresa elkartuei teknologia eta teknika berdeak ezartzen laguntzeko. – Fauna, flora eta ekosistemak kontserbatzeko dauden proiektuei buruzko informazioa ematea enpresa elkartuei, ekarpen ekonomikoen bidez lagundu ahal izan dezaten.	– Habitatak leheneratzeko proiektuetan parte hartzen duten enpresa elkartuen kopurua. – Boluntariotza-jardunaldietan parte hartzen duten enpresa-boluntarioen kopurua. – Leheneratze-proiektuetan parte hartzeko GKEekin eta tokiko elkarteekin lortutako akordioen kopurua.	Fundación Basotik, Fundación Vital, Fundación Biodiversidad.
		Ziurtapen ekologikoa	– Ingurumen-diagnostikoari buruzko galdetegi erraz bat sortzea, enpresek jasangarritasunaren, baliabideen eraginkortasunaren, hondakinen kudeaketaren, material birziklagarrien erabileraren eta energia berriztagarrien arloko egungo jardunbideak aurrez ebaluatu ahal izan ditzaten. – Klusterreko enpresei zirkularitasunaren ziurtagiriak ezagutaraztea, materialak berrerabiltzea, energia berrizta garriak erabiltzea eta ura kudeatzea kontuan hartzen dituztenak.	– Produkturen batean etiketa ekologikoren bat duten enpresa elkartuen kopurua.	IK-Ingeniería, B Corp, Cradle to Cradle
	Hondakinen eta material arriskutsuen kudeaketa	Birziklatze-tasa eta material arriskutsuak	– Enpresen azpiproduktu edo hondakinen sinbiosi-sare bat sortzea, hondakinak eta haien helmugak biltzen dituen datu-base komun gisa; materialak berrerabiltzea eta «hondakin izateari uztea» kontzeptua sustatzeko. – Hornitzaileekin ekonomia zirkularreko kontratuak sustatzea, ekozipen-zikloan erabili ondoren baliabideak birziklatzeko edo berrerabiltzeko plan bat eskatzeko.	– Birziklatze-tasa (t). – Industria-sinbiosiko lankidetzen kopurua. – Ekonomia zirkularreko plan edo estrategia bat duten enpresa elkartuen kopurua.	Ihobe, Tecnalia
		Material arriskutsuen eta EEHen optimizazioa, tratamenduaren eta kudeaketa	– Eraikuntzan erabiltzen diren material arriskutsu nagusien zerrenda eta horiek ordezkatzeko alternatiba ez-arriskutsuak prestatzea. – Enpresa elkartuetan hondakinak kudeatzeaz arduratzen diren teknikarien E-SIR sistemari eta hondakinen aitorpenari buruzko prestakuntza ematea, plataforma ulertzen eta IKS sistematik migratzen laguntzeko. Oharra: EAErako eraikuntza- eta eraispen-hondakinei eta ekonomia zirkularrari buruzko dekretu berria onartzen denean, aurrez aurreko tailerrak egingo dira hura azaltzeko.	– Sortutako hondakin arriskutsuen bolumena (t). – Materialen Erabileraren Eraginkortasun Indizea (IEM): erabilitako materiala / fabrikatutako produktua. – Materialen xahutze-tasa: xahututako materiala / erabilitako material guztia. – Zerrendari eta arau-esparru berriari buruz klusterrak jasotako kontsulten kopurua. – Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.	Ihobe, Ministerio Transición Ecológica y Reto Demográfico, Cocircular.
	Energiaren kudeaketa	Energia-kontsumoa	– Energia-auditoriek bete behar dituzten gutxieneko eskakizunak biltzen dituen txantiloia sortzea, enpresek auditoriak prestatzeko laguntza gisa erabil dezaten. – Enpresa elkartuek beren energia-aurrezpena diagnostika dezaten sustatzea.	– Energia-kontsumoaren diagnostikoa egin duten enpresa elkartuen kopurua. – Txantiloia jaso edo eskatu duten enpresa elkartuen kopurua.	Ente Vasco de la Energía (EVE), Cámara de Comercio e Industria, Clúster de Energía del País Vasco.
		Monitorizazio energetikoa	– Monitorizazio energetikorako tresna digitalak sustatzea. – Enpresa elkartuei energia-aurrezkiaren ziurtagiriak (CAE) lortzearekin eta aurrezpen hori diru bihurtzearekin lotutako laguntzak eta zerga-onurak eskatzen lagunduko dien gida sortzea. – Energia-komunitateak sortzeko kasu arrakastatsuei eta Euskadin izan dezaketen aplikagarritasunari buruzko azterketa egitea. – Enpresa elkartuei energia-eraginkortasuneko inbertsioaren itzulera (ROI) kalkulatzeko tresnak erabiltzen irakasteko prestakuntza antolatzea.	– Energia aurrezteko ekintza-plan bat ezarri duten enpresa elkartuen kopurua. – Antolatutako tailerren kopurua. – Prestakuntza-jardunaldi eta tailerretan parte hartzen duten enpresen kopurua.	Ente Vasco de la Energía (EVE), Cámara de Comercio e Industria, Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía (IDAE), Red Española de Ciudades por el Clima

Ardatza	Ildo estrategikoa		Ekintzak	Adierazleak (KPI)	Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak
PEOPLE	Giza eskubideak	Behar bezalako diligentzia	– Enpresa elkartuentzako giza eskubideen arloko behar bezalako diligentziako estrategia bat hartzeko gida praktikoa prestatzea, CSDDD Zuzentarauaren betekizunei eta borondatezko betekizunei erantzuteko. – Eraikuntzaren sektorerako proiektu, obra edo zerbitzuen bizi-ziklo sozialaren ebaluazioari (ECV Social) buruzko gida praktikoa prestatzea. – Gobernu-erakundeekin eta sozietate publikoekin lankidetzan aritzea, enpresa elkartuetan behar bezalako diligentziako neurriak sustatzeko, haien inguruko sentsibilizazioa lantzeko eta ezarpenean laguntzeko. – Giza eskubideetan espezializatutako GKEekin eta erakundeekin lankidetzak ezartzea, enpresei behar bezalako diligentziako neurriak aplikatzen laguntzeko.	– Behar bezalako diligentziako prozesu bat ezarri duten enpresa elkartuen kopurua. – Bizi-ziklo sozialaren ebaluazioa (ECV Social) egin duten proiektu, obra edo zerbitzuen kopurua.	DFB, BEAZ, COORDINADORA DE ONGD DE EUSKADI, AMNISTIA INTERNACIONAL, OXFAM INTERMON, ALBOAN.
		Talentua eta aniztasuna	– Klusterrak aniztasunarekin duen konpromisoaren adierazpena egitea. – GKEekin eta erakunde espezializatuekin lankidetzan arituz, berdintasun-planak ezartzea erraztea. – Enpresa elkartuetan aniztasun-helburuak ezartzea sustatzea eta aniztasunaren adierazleak neurtzeko sistemak ezartzea. – Industrian aniztasuna bultzatzeko jardunbide egokien eskuliburua sortu eta zabaltzea; besteak beste, aniztasunarekin lotutako alborapenei buruzko gida bat eta hizkera inklusiboari buruzko beste bat prestatzea. – Alborapen inkontzienteei, genero-berdintasunari, aniztasunari eta desgaitasuna duten pertsonen inklusioari buruzko prestakuntza-programak eskaintzea. – Aukera-berdintasuna bermatzeko hautaketa-prozesuak eta garapen profesionala egokitzeari buruzko tailer praktikoak antolatzea. – Hezkuntza-erakundeak, enplegu-zentro bereziak eta gizarte- eta lan-integrazioaren arloan diharduten GKEak enpresa elkartuekin konektatzea, talentu anitza erakartzeko. – Sare espezifikoak sortzea, hala nola eraikuntzako emakumeen talde bat edo profesional anitzen sare bat, esperientziak partekatzeko. – Enpresa elkartuetako kontziliazio-jardunbide egokiak aztertzea eta horiek hartzea sustatzeko gomendioak diseinatzea. – Familia-kontziliazioaren ziurtagiriak hartzea sustatzea, hala nola EFR (Empresa Familiarmente Responsable).	– Enpresa elkartuetako emakumeen parte-hartzea (%): langile-taldean, zuzendaritzan eta administrazio-kontseiluan. – Enpresa elkartuetan desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea (%). – Enpresa elkartuetako belaunaldi-, kultura- eta etnia-aniztasuna, eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen presentzia (%). – Berdintasun-planak ezarri dituzten enpresa elkartuen ehunekoa. – Aniztasuna eta inklusioa sustatzeko politikak, planak eta ekimenak dituzten enpresa elkartuen kopurua. – Tokiko legeriak eskatutakotik haragoko lan-kontziliazioko neurriak dituzten enpresa elkartuen kopurua. – Familia-kontziliazioaren ziurtagiriak dituzten enpresa elkartuen kopurua. – Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.	LANBIDE, WAS, EMAKUNDE, FLC, CEAR, GUREAK, BAI Sarea, Gizatea, REDI, EHLABE, EmakumeEkin, AED (Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia)
		Prestakuntza eta gaitasunen garapena	– Unibertsitateekin, institutuekin eta prestakuntza teknikoko zentroekin hitzarmenak egitea, ikastaro espezializatuak diseinatzeko eta enpresa elkartuetan lanbide-praktikak eskaintzeko. – Klusterraren jasangarritasun-arloko akademia sortzea.	– Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.	Universidad de Deusto, Mondragon Unibertsitatea, EHU-UPV, Usurbil LHII
	Pertsonen segurtasuna eta osasuna, eta lan-arriskuen prebentzioa	One Health	– One Health ikuspegia nola aplikatu azaltzen duen erreferentzia-dokumentua sortzea. – Lehendik dauden ekimenak identifikatzea eta eraikuntzaren sektorean «Osasun bakarra» ikuspegia aplikatzeko jardunbide egokien adibideak erakustea, ongizaterako eta laguntza psikologikorako ekimenak sustatuz. – Osasun publikoko erakundeekin, unibertsitateekin, GKEekin eta tokiko agintariekin lankidetzan aritzea, One Health txertatzen duten baterako proiektuak garatzeko.	– One Health estrategia integratzeko enpresa elkartuetan ezarritako ekimen espezifikoen kopurua.	OSALAN, Fundación Laboral de la Construcción, Lanbide
		Berrikuntza, ikaskuntza kolektiboa eta etengabeko hobekuntza	– Irtenbide tekniko berri eta berritzaileei buruzko ezagutza eskuragarri jartzea. – Lan-arriskuen prebentzioaren arloko berrikuntza-jardunaldiak antolatzea. – Fundación Laboral de la Construcción erakundearekin lankidetzan aritzea, informazioa trukatzeko guneak sustatzeko eta enpresa elkartuen beharretara egokitutako prestakuntza eskaintzeko. – Proiektuak ideiatzea eta hainbat deialditara aurkeztea.	– Segurtasuna eta osasuna hobetzeko tresna adimendunak ezarri dituzten enpresa elkartuen kopurua. – Antolatutako jardunaldien kopurua eta ordu-kopurua. – Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.	FLC, Ikerlan, BexReal
	Produktuaren kalitatea eta azken erabiltzaileare n segurtasuna	Safety by Design	– Eraikuntzaren sektorerako diseinutik bertatik segurtasuna txertatzeko ikuspegiari buruzko gida prestatzea. – Diseinu-, ingeniaritza- eta eraikuntza-taldeak ikuspegi horren printzipioetan trebatzeko tailerrak eta mintegiak antolatzea.	– Safety by Design aplikatzen duten proiektuen kopurua. – Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.	Izaite, Tecnalia, Ihobe
		Universal Design	– Eraikuntzaren sektorerako diseinu unibertsalaren ikuspegiari buruzko gida prestatzea. – Irisgarritasuneko adituekin eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeekin lan egitea, irtenbideak eraginkorrak direla bermatzeko.	– Universal Design aplikatzen duten proiektuen kopurua.	Once, Edeka
		Kudeaketa-sistema integratua	– Sektorearentzat garrantzitsuenak diren ziurtagiriak identifikatzea, moten eta erakunde ziurtatzaileen arabera. – Enpresa elkartuei ziurtagiriak lortzen laguntzea, lotutako proiektu guztiek ezarritako kalitate- eta segurtasun-eskakizunak bete ditzaten (ISO 9001, ISO 45001, ISO 20887, EMAS eta abar). – ISO 20887 araua ezartzeko eta ziurtagiria lortzeko berariazko prestakuntza-tailerrak antolatzea.	– ISO 9001 ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua. – ISO 45001 ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua. – ISO 14001 ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua. – ISO 37001 ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua. – SA 8000 ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua. – EMAS ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua.	Aenor, Euskalit

Ardatza	Ildo estrategikoa		Ekintzak	Adierazleak (KPI)	Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak
VALUE	Lehia etikoa	Jokabide-kodea	– Enpresa elkartu guztiei aplikatzeko sektoreko kode etiko bat prestatzea. – Enpresa-etikaren arloko eskuliburu eta gida praktikoak eskaintzea. – Gaitasun etikoen arloko tailerrak eta prestakuntza-programak antolatzea. – Enpresei hornitzaileak eta azpikontratistak hautatzean irizpide etikoak aplikatzen laguntzea, balio-kate osoan jardunbide arduratsuak sustatzeko. – Hornitzaile eta kontratistekin baterako prestakuntza-saioak antolatzea, klusterraren estandar etikoei buruz.	– Jokabide-kode bat hartu duten enpresa elkartuen kopurua. – Kode etikoa eta kontratu-klausulak dituzten enpresa elkartuen kopurua. – Ebaluazio- eta homologazio-prozedura bat duten enpresa elkartuen kopurua. – Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.	Instituto de Oficiales de Cumplimiento, CEBEK y Confebask
		Ustelkeriaren eta eroskeriaren prebentzioa eta detekzioa	– Araudia betetzeko kudeaketa-sistema bat diseinatu, ezarri eta mantentzeko gida praktikoa prestatzea. – Salatzaileen babesa bermatzea, errepresaliak saihesteko politika argiak garatuz.	– Ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko eta detektatzeko prozedura bat hartu duten enpresa elkartuen kopurua. – Errepresaliei aurre egiteko politika argiak hartu dituzten enpresa elkartuen kopurua.	Instituto de Oficiales de Cumplimiento, CEBEK y Confebask
		Gardentasuna	– Lankidetzak ezartzea enpresei jasangarritasunari buruzko txostenak prestatzen, ESG datuak kudeatzen eta jasangarritasunaren arloko enpresa-informazioaren estandarrak aplikatzen laguntzeko. – Klusterreko enpresen konpromisoa sustatzeko, jasangarritasunaren arloko ziurtagirien, indizeen, bereizgarrien, ratingen eta ebaluazio-sistemen datu-base bat sortzea (Pacto Mundial, B Corp, DJSI, CDP, besteak beste). – Jasangarritasun-estandarrak interpretatzeko eta praktikan aplikatzeko aldizkako mintegiak, tailerrak eta web-mintegiak antolatzea. – Materialtasun bikoitzaren azterketari, CSRDren araberako txostenak prestatzeari eta ESRS galdetegiei buruzko prestakuntza sendotzea.	– Materialtasun bikoitzaren azterketa bat duten enpresa elkartuen kopurua. – CSRDren eskakizunen araberako jasangarritasun-txostena argitaratu duten enpresa elkartuen kopurua. – Jasangarritasun-txostena argitaratu duten enpresa elkartuen kopurua. – Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.	Instituto de Oficiales de Cumplimiento, CEBEK y Confebask
	Hornidura jasangarria eta materialen erabilera eraginkorra	Balio-kate jasangarria	– Jasangarritasunaren arloan emaitza nabarmenak dituzten merkataritza-bazkideak identifikatzen laguntzeko erosketa jasangarriaren gida prestatzea.	– Erosketa jasangarriko politika bat duten enpresa elkartuen kopurua.	Ihobe, Aclima
	Finantzaketa jasangarria	Finantza-tresnak	– Eskuragarri dauden finantza-tresnei buruzko gida prestatzea: bonu sozialak, bonu berdeak, mailegu jasangarriak, inbertsio jasangarriko funtsak, finantzaketa-lerroak eta dirulaguntza publikoak, eta garapenerako banku multilateralek emandako finantzaketa. – Funts eta deialdi garrantzitsuen datu-base eguneratu bat sortzea. – Finantzaketa-mekanismo horiekin lotutako esperientziak partekatzeko enpresa-saioak antolatzea.	– Finantzaketa jasangarria eskuratu duten enpresa elkartuen kopurua. – Mobilizatutako funtsak (€).	Instituto Vasco de Finanzas (IVF), BasqueFIK
		Banku etikoa	– Banku etikoa zer den azaltzen duten gidak sortu eta partekatzea, eta banku etikoekin saioak antolatzea. – Banku-erakunde etikoen eta interesa duten enpresen arteko harreman zuzena erraztea.	– Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.	Instituto Vasco de Finanzas (IVF)



Planet

SUSTA:INNABILITYk planetaren **oreka** zaintzea du helburu, baliabideak modu jasangarrian kudeatuz, ekonomia zirkularra sustatuz eta izaki bizidun guztien biziraupena bermatuko duen ekosistema eraikiz.

1. Klima-aldaketa eta berotegi-efektuko gasak

Enpresa elkartuek karbono-isuriak murrizteko neurri egokiak har ditzaten sustatzea, energia berriztagarrietarako trantsizioaren bidez; nazioarteko esparruek ezarritako klima-neutraltasuneko helburuak bete ditzaten bultzatzea; eta egindako lana balioan jartzea, proiektuak programetan aurkeztuz.



1. KARBONO-AZTARNA

Karbono-aztarnaren kalkulua erraztea (1., 2. eta 3. irismenak), eta aztarna hori egiaztatzea sustatzea.



2. DESKARBONIZAZIO-PLANA

Epe luzeko berotze globala 1,5 °C-ra mugatzeko agertokiekin bat datozen deskarbonizazio-planak ezartzea sustatzea.



3. MUGIKORTASUNAREN ETA MAKINERIAREN OPTIMIZAZIO ENERGETIKOA

Lehengaiak eraukteko eta prozesatzeko lanetan makina elektrikoak erabiltzea eta haien erabileraren jarraipena egitea sustatzea.



1. KARBONO-AZTARNA

Karbono-aztarnaren kalkulua erraztea (1., 2. eta 3. irismenak), eta egiaztatzea sustatzea.

1. ekintza. *Berotegi Efektuko Gasen Protokoloa (GHG Protocol) ezagutaraztea eta enpresentzat duen balioa nabarmentzea.*

2. ekintza. *Eraikuntzaren sektorerako berariazko karbono-aztarna kalkulatzeko tresnen erabilera sustatzea, eta enpresei prestakuntza eta laguntza ematea; besteak beste, One Click LCA edo Ihoberen Climate and Circularity Calculator.*

1.
1. eta 2. irismeneko isuriak kalkulatu eta MITECOren erregistroan inskribatu dituzten enpresa elkartuen kopurua.

2.
irismeneko isuriak kalkulatu dituzten enpresa elkartuen kopurua.

3.
Karbono-aztarna egiaztatu duten enpresa elkartuen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

One Click LCA · ITeC Institut de Tecnologia de la Construcció de Catalunya · ecômetro · ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental



2. DESKARBONIZAZIO-PLANA

Epe luzeko berotze globala 1,5 °C-ra mugatzeko agertokiekin bat datozen deskarbonizazio-planak ezartzea sustatzea.

1. ekintza. *Libro Blanco de la Descarbonización en el Sector de la Construcción dokumentuaren edukiak enpresa elkartuen artean zabaltzea, informazio-pilulen eta tailerren bidez; liburuaren aplikazio praktikoak eta jardunbide arrakastatsuen adibideak jasoko dituzte.*

2. ekintza. *Eraikuntzaren sektorerako Europar Batasuneko teknika erabilgarri onenak biltzen dituen laburpen-orri itzuli bat prestatzea, enpresek errazago uler ditzaten.*

1.
Teknika erabilgarri onenak aplikatzen dituzten enpresa elkartuen kopurua.

2.
Deskarbonizazioaren arloan konpromiso publikoak edo barne-konpromisoak hartzen dituzten enpresa elkartuen kopurua.

3.
Proposatutako ekintzak egin ondoren aholkularitza osagarria eskatzen duten enpresa elkartuen kopurua.

4.
Zabalkunde-ekintzetan parte hartzen duten enpresa elkartuen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

BAIC BASQUE ARTIFICIAL INTELLIGENCE CENTER

BC3

ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental

NET ZERO BASQUE



3. MUGIKORTASUNAREN ETA MAKINERIAREN OPTIMIZAZIO ENERGETIKOA

Lehengaiak erauzteko eta prozesatzeko eragiketetan makina elektrikoak erabiltzea eta haien erabileraren jarraipena egitea sustatzea.

1. ekintza. *Makineria konbentzionala elektrikoarekin ordezkatu nahi duten enpresek eska ditzaketen Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko dirulaguntzen zerrenda edo laburpena prestatzea.*

2. ekintza. *Administrazio publikoekin hitzarmenak sustatzea, informazio geografikoko sistemak (GIS) eta adimen artifiziala (AA) erabiliko dituzten proiektuak bultzatzeko, ibilbideak erregai-kontsumoaren eta isurien ikuspegitik optimizatzeko.*

1. *Makineria ordezkatzeko dirulaguntzak eskatu dituzten enpresa elkartuen kopurua.*

2. *Ibilbideak optimizatzeko administrazioekin egindako hitzarmenen kopurua.*

3. *Ibilbide eraginkorren proiektuek hartzen dituzten EAEko udalerrien kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

MUBIL · Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa · AZTI MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE · BASQUECCAM · aic AUTOMOTIVE INTELLIGENCE CENTER · euskal árido · ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA / ENTE VASCO DE LA ENERGÍA · spri

2. Uraren eta hondakin-uren kudeaketa

Enpresa elkartuek uraren erabilera arduratsua egin dezaten sustatzea, jarduera-faseek eragindako inpaktuak identifikatuz eta arinduz, ur-aztarna murriztuz eta azaleko uren babesa bermatuz; hartara, inguruko eremuetarako eta komunitateetarako ur-baliabideen jasangarritasuna ziurtatzeko.



1. UR-AZTARNA

Ur-aztarnaren kalkulua erraztea eta hura egiaztatzea sustatzea.



2. URAREN KUDEAKETA JASANGARRIA

Ura birziklatzeko, berrerabiltzeko eta drainatze jasangarria egiteko irtenbideak ezartzea bultzatzea.



1. UR-AZTARNA

Ur-aztarnaren kalkulua erraztea eta egiaztatzea sustatzea.

1. ekintza. *Water Footprint Network enpresa elkartuen artean ezagutaraztea.*

2. ekintza. *Barne-auditoriak egiteko txantiloi edo egiaztapen-zerrenda bat prestatzea, ur-aztarna egiaztatzeko garaian atzeraelikadura eskaintzeko eta enpresek autoebaluazioa egin ahal izateko.*

3. ekintza. *Aqueduct Risk Atlas tresnaren erabilera sustatzea.*

1.
Ur-aztarna kalkulatu duten enpresa elkartuen kopurua.

2.
Ur-aztarna egiaztatuta duten enpresa elkartuen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

tecnalia
MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

EsAgua

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia



2. URAREN KUDEAKETA JASANGARRIA

Ura birziklatzeko, berrerabiltzeko eta drainatze jasangarria egiteko irtenbideak ezartzea bultzatzea.

1. ekintza. *Azpiegitura berdeak ezartzean eragina izan dezaketen hirigintza-, araudi- edo plangintza-murrizketen zerrenda prestatzea.*

2. ekintza. *Naturan oinarritutako drainatze jasangarriko sistemak (SuDS) garatzen dituzten enpresekin harremanak sortzea eta bitartekari-lanak egitea; adibidez, estalki berdeak edo zoladura iragazkorrak garatzen dituztenekin.*

3. ekintza. *Enpresa elkartuei SuDS sistemei eta eraikuntzaren sektorean duten aplikazioari buruzko prestakuntza ematea.*

4. ekintza. *Eraikuntzaren sektorean ura berrerabiltzeari buruzko kasu arrakastatsuen eta jardunbide on horien onuren inguruko tailer bat antolatzea.*



2. URAREN KUDEAKETA JASANGARRIA

Ura birziklatzeko, berrerabiltzeko eta drainatze jasangarria egiteko irtenbideak ezartzea bultzatzea.

1. *Beren instalazioetan ura birziklatzeko edo berrerabiltzeko sistemak txertatu dituzten enpresa elkartuen kopurua.*

2. *Ura birziklatzeko edo berrerabiltzeko sistemak dituzten proiektuen ehunekoa.*

3. *Drainatze jasangarriko irtenbideak dituzten eraikuntza-proiektuen ehunekoa.*

4. *Hirigintza-murrizketen zerrenda kontsultatu edo deskargatu duten enpresa elkartuen ehunekoa (klusterraren gainean).*

5. *Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

ura ur agentzia agencia vasca del agua

CETAQUA CENTRO TECNOLÓGICO DEL AGUA

SUDS SISTEMAS URBANOS DRENAJE SOSTENIBLE S.L.

MADRID

ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental

3. Produktuen diseinua eta bizi-zikloaren kudeaketa

Enpresa elkartuek produktuen diseinuan ekonomia zirkularraren printzipioak aplika ditzaten sustatzea; horretarako, bizi-zikloa kudeatzeko estrategiak bultzatzea, ekodiseinua, baliabideen optimizazioa eta bizitza baliagarria amaitzean berrerabiltzeko, birziklatzeko edo berreskuratzeko plangintza barne hartuta.



1. PRODUKTUAREN INGURUMEN-ADIERAZPENA

Produktu nagusien ingurumen-adierazpenak lortzea sustatzea.



2. PRODUKTUAREN PASAPORTE DIGITALA (PDP)

PDPa hedatzea, ezartzea eta goiz erabiltzea sustatzea, etorkizuneko arauei eta merkatuaren joerei aurrea hartzeko.



3. HABITATAK LEHENERATZEA ETA NATURA-KAPITALA BABESTEA

Ekosistemak leheneratzea eta biodibertsitatea kontserbatzea sustatzea, jardunbide jasangarrien bidez eta bizi-zikloan oinarritutako ikuspegiarekin, ingurumen-inpaktua murrizteko eta erresilientzia ekologikoa bermatzeko.



4. ZIURTAPEN EKOLOGIKOA

Inbertitzaileei eta interes-taldeei ingurumen-bermea ematen dieten ziurtagiriak lortzea sustatzea.



1. PRODUKTUAREN INGURUMEN-ADIERAZPENA

Produktu nagusien ingurumen-adierazpenak lortzea sustatzea.

1. ekintza. *Bizi-zikloa modelizatzeko eta inpaktuak kalkulatzeko tresnak ezagutaraztea eta haien erabilera sustatzea; adibidez, Ihoberen Climate and Circularity Calculator.*

2. ekintza. *Enpresa elkartuek produktuaren ingurumen-adierazpenak (DAP) presta ditzaten sustatzea, tailer praktikoen edo arauak interpretatzeko ikastaroen bidez.*

1.
Produktuaren ingurumen-adierazpena (DAP) duten enpresa elkartuen kopurua.

2.
Bizi-zikloaren azterketarako (ACV) software integratua duten enpresa elkartuen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

tecnalia MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental

CERTINALIA tecnalia group

IK / INGENIERIA

innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia Agencia Vasca de la Innovación



2. PRODUKTUAREN PASAPORTE DIGITALA (PDP)

PDPa hedatzea, ezartzea eta goiz erabiltzea sustatzea, etorkizuneko arauei eta merkatuaren joerei aurrea hartzeko.

1. ekintza. *PDPa ezartzeko lanean ari diren enpresekin tailerrak egitea, iritziak eta esperientziak alderatzeko.*

2. ekintza. *PDP batek izan behar duen oinarrizko egituraren txantiloia sortzea.*

3. ekintza. *PDParekin lotuta gauzatutako ekimenei buruzko prestakuntza-tailerrak antolatzea.*

1. *PDParekin lanean hasi diren enpresa elkartuen kopurua.*

2. *Gizarte- eta ingurumen-inpaktuaren trazabilitatea ahalbidetzen duten produktuen ehunekoa.*

3. *Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

tecnalia MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental

CERTINALIA tecnalia group

IK / INGENIERIA

innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia Agencia Vasca de la Innovación



3. HABITATAK LEHENERATZEA ETA NATURA-KAPITALA BABESTEA

Ekosistemak leheneratzea eta biodibertsitatea kontserbatzea sustatzea, jardunbide jasangarrien bidez; bizi-zikloan oinarritutako ikuspegia erabiliz, ingurumen-inpaktua murriztu eta erresilientzia ekologikoa bermatzeko.

1. ekintza. *GKEekin eta tokiko elkarteekin lankidetzak ezartzea, enpresa-boluntariotzako jardunaldien bidez habitatak leheneratzeko proiektuetan parte hartzeko.*

2. ekintza. *Tailer bat egitea enpresa elkartuei teknologia eta teknika berdeak ezartzen laguntzeko.*

3. ekintza. *Fauna, flora eta ekosistemak kontserbatzeko dauden proiektuei buruzko informazioa ematea enpresa elkartuei, ekarpen ekonomikoen bidez lagundu ahal izan dezaten.*

1. *Habitatak leheneratzeko proiektuetan parte hartzen duten enpresa elkartuen kopurua.*

2. *Boluntariotza-jardunaldietan parte hartzen duten enpresa-boluntarioen kopurua.*

3. *Leheneratze-proiektuetan parte hartzeko GKEekin eta tokiko elkarteekin lortutako akordioen kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

BSTK Basotik Fundazioa Basozaintza aurreratua

Vital FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Fundación Biodiversidad



4. ZIURTAPEN EKOLOGIKOA

Inbertitzaileei eta interes-taldeei ingurumen-bermea eskaintzen dieten ziurtagiriak lortzea sustatzea.

1. ekintza. *Ingurumen-diagnostikoari buruzko galdetegi erraz bat sortzea, enpresek jasangarritasunaren, baliabideen eraginkortasunaren, hondakinen kudeaketaren, material birziklagarrien erabileraren eta energia berriztagarrien arloko egungo jardunbideak aurrez ebaluatu ahal izan ditzaten.*

2. ekintza. *Klusterreko enpresei zirkulartasunaren ziurtagiriak ezagutaraztea, materialak berrerabiltzea, energia berriztagarriak erabiltzea eta ura kudeatzea kontuan hartzen dituztenak.*

1.
Produkturen batean etiketa ekologikoren bat duten enpresa elkartuen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

IK / INGENIERIA

cradletocradle

4. Hondakinen eta material arriskutsuen kudeaketa

Enpresa elkartuek hondakinak eta material arriskutsuak kudeatzeko jardunbide aurreratuak ezar ditzaten sustatzea; materialak ahalik eta gutxien xahutzeko, modu seguruan erabiltzeko eta bizi-zikloaren fase guztietan berrerabiltzeko planak bultzatzea; eta sektoreko azpiproduktuak trukatuz industria-sinbiosia sustatzea.



1. BIRZIKLATZE-TASA ETA MATERIAL ARRISKUTSUAK

Eragiketetan eta proiektuetan birziklatutako edo berrerabilitako materialen tasen jarraipen proaktiboa sustatzea.



2. MATERIAL ARRISKUTSUEN ETA ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINEN (EEH) OPTIMIZAZIOA, TRATAMENDUA ETA KUDEAKETA

Materialen trazabilitatea sustatzea, bereziki hondakin arriskutsuak eta EEHak behar bezala kudeatzeko, eraginkortasuna hobetzeko neurrien bidez.



1. BIRZIKLATZE-TASA ETA MATERIAL ARRISKUTSUAK

Eragiketetan eta proiektuetan birziklatutako edo berrerabilitako materialen tasen jarraipen proaktiboa sustatzea.

1. ekintza. *Enpresen azpiproduktu edo hondakinen sinbiosi-sare bat sortzea, hondakinak eta haien helmugak biltzen dituen datu-base komun gisa; materialak berrerabiltzea eta «hondakin izateari uztea» kontzeptua sustatzeko.*

2. ekintza. *Hornitzaileekin ekonomia zirkularreko kontratuak sustatzea, ekoizpen-zikloan erabili ondoren baliabideak birziklatzeko edo berrerabiltzeko plan bat eskatzeko.*

1. *Birziklatze-tasa (t).*
2. *Industria-sinbiosiko lankidetzen kopurua.*
3. *Ekonomia zirkularreko plan edo estrategia bat duten enpresa elkartuen kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

tecnalia
MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental



2. MATERIAL ARRISKUTSUEN ETA EEHEN OPTIMIZAZIOA, TRATAMENDUA ETA KUDEAKETA

Materialen trazabilitatea sustatzea, bereziki hondakin arriskutsuak eta EEHak behar bezala kudeatzeko, eraginkortasuna hobetzeko neurrien bidez.

1. ekintza. *Eraikuntzan erabiltzen diren material arriskutsu nagusien zerrenda eta horiek ordezkatzeko alternatiba ez-arriskutsuak prestatzea.*

2. ekintza. *Enpresa elkartuetan hondakinak kudeatzeaz arduratzen diren teknikariei E-SIR sistemari eta hondakinen aitorpenari buruzko prestakuntza ematea, plataforma ulertzen eta IKS sistematik migratzen laguntzeko.*

**Oharra: EAErako eraikuntza- eta eraispen-hondakinei eta ekonomia zirkularrari buruzko dekretu berria onartzen denean, aurrez aurreko tailerrak egingo dira hura azaltzeko.*

1. *Sortutako hondakin arriskutsuen bolumena (t).*
2. *Materialen Erabileraren Eraginkortasun Indizea (IEM): erabilitako materiala / fabrikatutako produktua.*
3. *Materialen xahutze-tasa: xahututako materiala / erabilitako material guztia.*
4. *Zerrendari eta arau-esparru berriari buruz klusterrak jasotako kontsulten kopurua.*
5. *Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

GOBIERNO DE ESPAÑA · MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO

ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental

COCIRCULAR de Residuos a Oportunidades

5. Energiaren kudeaketa

Enpresa elkartuen energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea, energia modu eraginkorrean erabiliz eta iturri berriztagarrietarako trantsizioa eginez; energia-kontsumoa monitorizatzeko eta optimizatzeko teknologia berritzaileak hartzea bultzatzea, eta eraikuntzaren fase guztietan energia-eraginkortasuneko irizpideak txertatzea.



1. ENERGIA-KONTSUMOA

Energia-kontsumoaren eta hura murrizteko jardueren jarraipena sustatzea.



2. MONITORIZAZIO ENERGETIKOA

Energia-kontsumoa kontrolatzeko monitorizazio-sistema bat ezartzea erraztea, eraginkortasuna etengabe hobetzeko eta aurrezpena maximizatzeko.



1. ENERGIA-KONTSUMOA

Energia-kontsumoaren eta hura murrizteko jardueren jarraipena sustatzea.

1. ekintza. *Energia-auditoriek bete behar dituzten gutxieneko eskakizunak biltzen dituen txantiloia sortzea, enpresek auditoriak prestatzeko laguntza gisa erabil dezaten.*

2. ekintza. *Enpresa elkartuek beren energia-aurrezpena diagnostika dezaten sustatzea.*

1.
Energia-kontsumoaren diagnostikoa egin duten enpresa elkartuen kopurua.

2.
Txantiloia jaso edo eskatu duten enpresa elkartuen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

Cámara de Comercio de España

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

Cluster Energía
BASQUE ENERGY CLUSTER



2. MONITORIZAZIO ENERGETIKOA

Energia-kontsumoa kontrolatzeko monitorizazio-sistema bat ezartzea erraztea, eraginkortasuna etengabe hobetzeko eta aurrezpena maximizatzeko.

1. ekintza. *Monitorizazio energetikorako tresna digitalak sustatzea.*

2. ekintza. *Enpresa elkartuei energia-aurrezkiaren ziurtagiriak (CAE) lortzearekin eta aurrezpen hori diru bihurtzearekin lotutako laguntzak eta zerga-onurak eskatzen lagunduko dien gida sortzea.*

3. ekintza. *Energia-komunitateak sortzeko kasu arrakastatsuei eta Euskadin izan dezaketen aplikagarritasunari buruzko azterketa egitea.*

4. ekintza. *Enpresa elkartuei energia-eraginkortasuneko inbertsioaren itzulera (ROI) kalkulatzeko tresnak erabiltzen irakasteko prestakuntza antolatzea.*

1. *Energia aurrezteko ekintza-plan bat ezarri duten enpresa elkartuen kopurua.*

2. *Antolatutako tailerren kopurua.*

3. *Prestakuntza-jardunaldi eta tailerretan parte hartzen duten enpresen kopurua.*


Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

Cámara de Comercio de España

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

IDAE
Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía

Red Española de Ciudades por el Clima









People

SUSTA:INNABILITYk pertsonak jartzen ditu aldaketaren **erdigunean**. Giza garapena sustatzen duten ingurune inklusiboak eta ongizatea bultzatzen duten baldintzak sortzen ditu, inor atzean utzi gabe.

6. Giza eskubideak

Enpresa elkartu guztiek behar bezalako diligentziako neurri egokiak izan ditzaten sustatzea, beren jardueretan eta balio-kate osoan lan-baldintzak, tratu- eta aukera-berdintasuna eta nazioartean aitortutako gainerako giza eskubideak errespetatzeko, baita beren produktu, zerbitzu eta negozio-harremanen bidez ere.



1. BEHAR BEZALAKO DILIGENTZIA

Giza eskubideen arloko behar bezalako diligentziako sistemak ezartzen laguntzea, enpresen jasangarritasunaren arloko behar bezalako diligentziari buruzko Zuzentarauaren (CSDDD) eta borondatezko beste printzipio batzuen arabera.



2. TALENTUA ETA ANIZTASUNA

Talentua erakartzea sustatzea, eraikuntzako enplegagarritasunaren erronkari erantzuteko eta ordezkaritza anitza eta inklusiboa bultzatzeko.



3. PRESTAKUNTZA ETA GAITASUNEN GARAPENA

Orientazioa eta prestakuntza sustatzea, enplegagarritasuna indartzeko.



1. BEHAR BEZALAKO DILIGENTZIA

Giza eskubideen arloko behar bezalako diligentziako sistemak ezartzen laguntzea, CSDDD Zuntarauarekin eta borondatezko beste printzipio batzuekin bat etorriz.

1. ekintza. *Enpresa elkartuentzako giza eskubideen arloko behar bezalako diligentziako estrategia bat hartzeko gida praktikoa prestatzea, CSDDD Zuzentarauaren betekizunei eta borondatezko betekizunei erantzuteko.*

2. ekintza. *Eraikuntzaren sektorerako proiektu, obra edo zerbitzuen bizi-ziklo sozialaren ebaluazioari (ECV Social) buruzko gida praktikoa prestatzea.*

3. ekintza. *Gobernu-erakundeekin eta sozietate publikoekin lankidetzan aritzea, enpresa elkartuetan behar bezalako diligentziako neurriak sustatzeko, haien inguruko sentsibilizazioa lantzeko eta ezarpenean laguntzeko.*

4. ekintza. *Giza eskubideetan espezializatutako GKEekin eta erakundeekin lankidetzak ezartzea, enpresei behar bezalako diligentziako neurriak aplikatzen laguntzeko.*

1.
Behar bezalako diligentziako prozesu bat ezarri duten enpresa elkartuen kopurua.

2.
Bizi-ziklo sozialaren ebaluazioa (ECV Social) egin duten proiektu, obra edo zerbitzuen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bizkaia beaz

EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA de ONGD EUSKADI

AMNISTÍA INTERNACIONAL

OXFAM Intermón

alboan ONG JESUITA FUNDAZIOA



2. TALENTUA ETA ANIZTASUNA

Talentua erakartzea sustatzea, eraikuntzako enplegagarritasunaren erronkari erantzuteko eta ordezkaritza anitza eta inklusiboa bultzatzeko.

1. ekintza. *Klusterrak aniztasunarekin duen konpromisoaren adierazpena egitea.*

2. ekintza. *GKEekin eta erakunde espezializatuekin lankidetzan arituz, berdintasun-planak ezartzea erraztea.*

3. ekintza. *Enpresa elkartuetan aniztasun-helburuak ezartzea sustatzea eta aniztasunaren adierazleak neurtzeko sistemak ezartzea.*

4. ekintza. *Industrian aniztasuna bultzatzeko jardunbide egokien eskuliburua sortu eta zabaltzea; besteak beste, aniztasunarekin lotutako alborapenei buruzko gida bat eta hizkera inklusiboari buruzko beste bat prestatzea.*

5. ekintza. *Alborapen inkontzienteei, genero-berdintasunari, aniztasunari eta desgaitasuna duten pertsonen inklusioari buruzko prestakuntza-programak eskaintzea.*

6. ekintza. *Aukera-berdintasuna bermatzeko hautaketa-prozesuak eta garapen profesionala egokitzeari buruzko tailer praktikoak antolatzea.*

7. ekintza. *Hezkuntza-erakundeak, enplegu-zentro bereziak eta gizarte- eta lan-integrazioaren arloan diharduten GKEak enpresa elkartuekin konektatzea, talentu anitza erakartzeko.*

8. ekintza. *Sare espezifikoak sortzea, hala nola eraikuntzako emakumeen talde bat edo profesional anitzen sare bat, esperientziak partekatzeko.*

9. ekintza. *Enpresa elkartuetako kontziliazio-jardunbide egokiak aztertzea eta horiek hartzea sustatzeko gomendioak diseinatzea.*

10. ekintza. *Familia-kontziliazioaren ziurtagiriak hartzea sustatzea, hala nola EFR (Empresa Familiarmente Responsable).*



2. TALENTUA ETA ANIZTASUNA

Talentua erakartzea sustatzea, eraikuntzako enplegagarritasunaren erronkari erantzuteko eta ordezkaritza anitza eta inklusiboa bultzatzeko.

1. *Enpresa elkartuetako emakumeen parte-hartzea (%)*
   - *Langile-taldean*
   - *Zuzendaritzan*
   - *Administrazio-kontseiluan*
2. *Enpresa elkartuetan desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea (%).*
3. *Enpresa elkartuetako belaunaldi-, kultura- eta etnia-aniztasuna, eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen presentzia (%).*
4. *Berdintasun-planak ezarri dituzten enpresa elkartuen ehunekoa.*
5. *Aniztasuna eta inklusioa sustatzeko politikak, planak eta ekimenak dituzten enpresa elkartuen kopurua.*
6. *Tokiko legeriak eskatutakotik haragoko lan-kontziliazioko neurriak dituzten enpresa elkartuen kopurua.*
7. *Familia-kontziliazioaren ziurtagiriak dituzten enpresa elkartuen kopurua.*
8. *Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua Servicio Vasco de Empleo · WAS · EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakunde Instituto Vasco de la Mujer · flc · CEA(R) · GUREAK · Gizatea Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea · BAI SAREA · REDI Red Empresarial por la Diversidad e Inclusión LGBTI · EDIA KUME EKIN · EHLABI · AED



3. PRESTAKUNTZA ETA GAITASUNEN GARAPENA

Orientazioa eta prestakuntza sustatzea, enplegagarritasuna indartzeko eta hobetzeko.

1. ekintza. *Unibertsitateekin, institutuekin eta prestakuntza teknikoko zentroekin hitzarmenak egitea, ikastaro espezializatuak diseinatzeko eta enpresa elkartuetan lanbide-praktikak eskaintzeko.*

2. ekintza. *Klusterraren jasangarritasun-arloko akademia sortzea.*

1.
Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea
University of Deusto

Mondragon Unibertsitatea

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

USURBILGO LANBIDE ESKOLA
CIFP USURBIL LHII

7. Pertsonen segurtasuna eta osasuna, eta lan-arriskuen prebentzioa

Enpresa elkartu guztiek pertsonen segurtasun- eta osasun-estandarrak betetzeko beharrezko kudeaketa-sistemak izan ditzaten sustatzea, eta pertsonen ongizate fisikoa eta emozionala bultzatzea.



1. ONE HEALTH

One Health («Osasun bakarra») ikuspegia aplikatzea sustatzea.



2. BERRIKUNTZA, IKASKUNTZA KOLEKTIBOA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Segurtasuna eta osasuna hobetzeko sistema eta teknologia adimendunak ezartzea erraztea, eta ikaskuntza kolektiboa eta baterako berrikuntza sustatzea.



1. ONE HEALTH

One Health («Osasun bakarra») ikuspegia aplikatzea sustatzea.

1. ekintza. *One Health ikuspegia nola aplikatu azaltzen duen erreferentzia-dokumentua sortzea.*

2. ekintza. *Lehendik dauden ekimenak identifikatzea eta eraikuntzaren sektorean «Osasun bakarra» ikuspegia aplikatzeko jardunbide egokien adibideak erakustea, ongizaterako eta laguntza psikologikorako ekimenak sustatuz.*

3. ekintza. *Osasun publikoko erakundeekin, unibertsitateekin, GKEekin eta tokiko agintariekin lankidetzan aritzea, One Health txertatzen duten baterako proiektuak garatzeko.*

1.

One Health estrategia integratzeko enpresa elkartuetan ezarritako ekimen espezifikoen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

OSALAN
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

FUNDACIÓN LABORAL DE LA CONSTRUCCIÓN

Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



2. BERRIKUNTZA, IKASKUNTZA KOLEKTIBOA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Segurtasuna eta osasuna hobetzeko sistema eta teknologia adimendunak ezartzea erraztea, eta ikaskuntza kolektiboa eta baterako berrikuntza sustatzea.

1. ekintza. *Irtenbide tekniko berri eta berritzaileei buruzko ezagutza eskuragarri jartzea.*

2. ekintza. *Lan-arriskuen prebentzioaren arloko berrikuntza-jardunaldiak antolatzea.*

3. ekintza. *Fundación Laboral de la Construcción erakundearekin lankidetzan aritzea, informazioa trukatzeko guneak sustatzeko eta enpresa elkartuen beharretara egokitutako prestakuntza eskaintzeko.*

4. ekintza. *Proiektuak ideiatzea eta hainbat deialditara aurkeztea.*

1. *Segurtasuna eta osasuna hobetzeko tresna adimendunak ezarri dituzten enpresa elkartuen kopurua.*

2. *Antolatutako jardunaldien kopurua eta ordu-kopurua.*

3. *Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

ikerlan
MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

FUNDACIÓN LABORAL DE LA CONSTRUCCIÓN

beXReal
XR SOLUTIONS FOR THE INDUSTRY

8. Produktuaren kalitatea eta azken erabiltzailearen segurtasuna

Enpresa guztiek eskaintzen dituzten produktuen kalitatea eta jasangarritasunaren nazioarteko estandarrak betetzea bermatzeko kudeaketa- eta ziurtapen-sistemak ezar ditzaten sustatzea, azken erabiltzailearen segurtasuna eta osasuna lehenetsiz.



1. SAFETY BY DESIGN

Diseinutik bertatik segurtasuna txertatzeko ikuspegia sustatzea.



2. UNIVERSAL DESIGN

Pertsona guztientzat irisgarria den ingurunea diseinatzea sustatzea.



3. KUDEAKETA-SISTEMA INTEGRATUA

Nazioartean aitortutako kudeaketa-sistemak ezartzea sustatzea.



1. SAFETY BY DESIGN

Diseinutik bertatik segurtasuna txertatzeko ikuspegia sustatzea.

1. ekintza. *Eraikuntzaren sektorerako diseinutik bertatik segurtasuna txertatzeko ikuspegiari buruzko gida prestatzea.*

2. ekintza. *Diseinu-, ingeniaritza- eta eraikuntza-taldeak ikuspegi horren printzipioetan trebatzeko tailerrak eta mintegiak antolatzea.*

1. *Safety by Design aplikatzen duten proiektuen kopurua.*

2. *Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

izaite
asociación de empresas vascas por la sostenibilidad
Iraunkortasunaren aldeko euskal enpresen elkartea

tecnalia
MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental



2. UNIVERSAL DESIGN

Pertsona guztientzat irisgarria den ingurunea diseinatzea sustatzea.

1. ekintza. *Eraikuntzaren sektorerako diseinu unibertsalaren ikuspegiari buruzko gida prestatzea.*

2. ekintza. *Irisgarritasuneko adituekin eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeekin lan egitea, irtenbideak eraginkorrak direla bermatzeko.*

1.
Universal Design aplikatzen duten proiektuen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

ONCE

EDEKA



3. KUDEAKETA-SISTEMA INTEGRATUA

Nazioartean aitortutako kudeaketa-sistemak ezartzea sustatzea.

1. ekintza. *Sektorearentzat garrantzitsuenak diren ziurtagiriak identifikatzea, moten eta erakunde ziurtatzaileen arabera.*

2. ekintza. *Enpresa elkartuei ziurtagiriak lortzen laguntzea, lotutako proiektu guztiek ezarritako kalitate- eta segurtasun-eskakizunak bete ditzaten (ISO 9001, ISO 45001, ISO 20887, EMAS eta abar).*

3. ekintza. *ISO 20887 araua ezartzeko eta ziurtagiria lortzeko berariazko prestakuntza-tailerrak antolatzea.*

1. *ISO 9001 ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua.*
2. *ISO 45001 ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua.*
3. *ISO 14001 ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua.*
4. *ISO 37001 ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua.*
5. *SA 8000 ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua.*
6. *EMAS ziurtagiria duten enpresa elkartuen kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

AENOR

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



Value

SUSTA:INNABILITY ongizatearen ekonomia da: baliabideak eta gaitasunak **lehiakortasun arduratsu** bihurtzen diren eredua.

9. Lehia etikoa

Enpresa elkartu guztiek beren jardueretan eta balio-kate osoan, baita produktu, zerbitzu eta negozio-harremanen bidez ere, ustelkeriaren, fiskalitatearen eta lehia leialaren arloko nazioarteko estandarrak betetzeko neurri egokiak izan ditzaten sustatzea.



1. JOKABIDE-KODEA

Estandar etikoak hartzea sustatzea.



2. USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN PREBENTZIOA ETA DETEKZIOA

Araudia betetzeko kudeaketa-sistemak eta barne-informazioko sistemak ezartzea erraztea.



3. GARDENTASUNA

Jasangarritasunari buruzko informazioa aurkeztea sustatzea.



1. JOKABIDE-KODEA

Estandar etikoak hartzea sustatzea.

1. ekintza. *Enpresa elkartu guztiei aplikatzeko sektoreko kode etiko bat prestatzea.*

2. ekintza. *Enpresa-etikaren arloko eskuliburu eta gida praktikoak eskaintzea.*

3. ekintza. *Gaitasun etikoen arloko tailerrak eta prestakuntza-programak antolatzea.*

4. ekintza. *Enpresei hornitzaileak eta azpikontratistak hautatzean irizpide etikoak aplikatzen laguntzea, balio-kate osoan jardunbide arduratsuak sustatzeko.*

5. ekintza. *Hornitzaile eta kontratistekin baterako prestakuntza-saioak antolatzea, klusterraren estandar etikoei buruz.*

1. *Jokabide-kode bat hartu duten enpresa elkartuen kopurua.*

2. *Kode etikoa eta kontratu-klausulak dituzten enpresa elkartuen kopurua.*

3. *Ebaluazio- eta homologazio-prozedura bat duten enpresa elkartuen kopurua.*

4. *Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

Instituto Oficiales Cumplimiento

CEBEK

ConfeBask
Somos empresa vasca. Somos compromiso.
Euskal enpresa gara. Konpromisoa gara.



2. USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN PREBENTZIOA ETA DETEKZIOA

Araudia betetzeko kudeaketa-sistemak eta barne-informazioko sistemak ezartzea erraztea.

1. ekintza. *Araudia betetzeko kudeaketa-sistema bat diseinatu, ezarri eta mantentzeko gida praktikoa prestatzea.*

2. ekintza. *Salatzaileen babesa bermatzea, errepresaliak saihesteko politika argiak garatuz.*

1.
Ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko eta detektatzeko prozedura bat hartu duten enpresa elkartuen kopurua.

2.
Errepresaliei aurre egiteko politika argiak hartu dituzten enpresa elkartuen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

Instituto Oficiales Cumplimiento

CEBEK

ConfeBask
Somos empresa vasca. Somos compromiso.
Euskal enpresa gara. Konpromisoa gara.



3. GARDENTASUNA

Jasangarritasunari buruzko informazioa aurkeztea sustatzea.

1. ekintza. *Lankidetzak ezartzea enpresei jasangarritasunari buruzko txostenak prestatzen, ESG datuak kudeatzen eta jasangarritasunaren arloko enpresa-informazioaren estandarrak aplikatzen laguntzeko.*

2. ekintza. *Klusterreko enpresen konpromisoa sustatzeko, jasangarritasunaren arloko ziurtagirien, indizeen, bereizgarrien, ratingen eta ebaluazio-sistemen datu-base bat sortzea (Pacto Mundial, B Corp, DJSI, CDP, besteak beste).*

3. ekintza. *Jasangarritasun-estandarrak interpretatzeko eta praktikan aplikatzeko aldizkako mintegiak, tailerrak eta web-mintegiak antolatzea.*

4. ekintza. *Materialtasun bikoitzaren azterketari, CSRDren araberako txostenak prestatzeari eta ESRS galdetegiei buruzko prestakuntza sendotzea.*

1. *Materialtasun bikoitzaren azterketa bat duten enpresa elkartuen kopurua.*

2. *CSRDren eskakizunen araberako jasangarritasun-txostena argitaratu duten enpresa elkartuen kopurua.*

3. *Jasangarritasun-txostena argitaratu duten enpresa elkartuen kopurua.*

4. *Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.*

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

Instituto Oficiales Cumplimiento

CEBEK

ConfeBask
Somos empresa vasca. Somos compromiso.
Euskal enpresa gara. Konpromisoa gara.

10. Hornidura jasangarria eta materialen erabilera eraginkorra

Hornitzaileak hautatzean ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak kontuan har daitezen sustatzea, balio-kateko langileen giza eskubideei arreta berezia eskainiz.



1. BALIO-KATE JASANGARRIA

Hornitzaileak hautatzean ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak kontuan hartzea sustatzea.



1. BALIO-KATE JASANGARRIA

Hornitzaileak hautatzean ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak kontuan hartzea sustatzea.

1. ekintza. *Jasangarritasunaren arloan emaitza nabarmenak dituzten merkataritza-bazkideak identifikatzen laguntzeko erosketa jasangarriaren gida prestatzea.*

1.
Erosketa jasangarriko politika bat duten enpresa elkartuen kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

aclima
Basque
Environment
Cluster

11. Finantzaketa jasangarria

Eraikuntzaren sektorean finantza-tresna jasangarriak erabiltzea sustatzea.



1. FINANTZA-TRESNAK

Finantzaketa jasangarriaren eskakizunak betetzen dituzten proiektuak egituratzen laguntzea enpresa elkartuei.



2. BANKU ETIKOA

Banku etikoa sustatzea, jardunbide jasangarriagoak eta balio etikoekin bat datozenak hartzea bultzatzeko eragile gisa.



1. FINANTZA-TRESNAK

Finantzaketa jasangarriaren eskakizunak betetzen dituzten proiektuak egituratzen laguntzea enpresa elkartuei.

1. ekintza. *Eskuragarri dauden finantza-tresnei buruzko gida prestatzea: bonu sozialak, bonu berdeak, mailegu jasangarriak, inbertsio jasangarriko funtsak, finantzaketa-lerroak eta dirulaguntza publikoak, eta garapenerako banku multilateralek emandako finantzaketa.*

2. ekintza. *Funts eta deialdi garrantzitsuen datu-base eguneratu bat sortzea.*

3. ekintza. *Finantzaketa-mekanismo horiekin lotutako esperientziak partekatzeko enpresa-saioak antolatzea.*

1.
Finantzaketa jasangarria eskuratu duten enpresa elkartuen kopurua.

2.
Mobilizatutako funtsak (€).

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

IVF FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

BASQUE F·I·K



2. BANKU ETIKOA

Banku etikoa sustatzea, jardunbide jasangarriagoak eta balio etikoekin bat datozenak hartzea bultzatzeko eragile gisa.

1. ekintza. *Banku etikoa zer den azaltzen duten gidak sortu eta partekatzea, eta banku etikoekin saioak antolatzea.*

2. ekintza. *Banku-erakunde etikoen eta interesa duten enpresen arteko harreman zuzena erraztea.*

1.
Antolatutako tailer eta prestakuntza-saioen kopurua eta ordu-kopurua.

Lankidetzan aritu daitezkeen erakundeak

FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS